

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 516/2021 Erabakia, irailaren 14koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoaren ordezkaria izendatzea Arbitraje Batzorderako

Arbitraje Batzordearen idazkariak 2021eko uztailaren 16an idazki bat igorri zuen Arabako Foru Aldundiari ondokoa jakinarazteko: Arbitraje Batzordea arauzten duen ekainaren 30eko 13/1994 legean aurrez ikusitakoaren arabera, lurralde historiko honek izendatzen duen kideari horretan jarraitzeko dagokion epea bukatu zaiola eta kide berri bat izendatu behar dela.

Arabako diputatu nagusiaren 2021eko irailaren 3ko ofizio baten bidez Arabako Biltzar Nagusiei jakinarazi zitzaion Javier Balza Aguilera Arbitraje Batzordean Arabako Lurralde Historiko honen ordezkari izendatzea Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluari proposatzeko asmoa. Horrela, bete gin zen Arbitraje Batzordea arauzten duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen 7.1 artikuluan jasotako informazio kontsultaren izapidea. 2021eko irailaren 7an Bozera-maileen Batzordeak irizpideak ematean aipatutako izapidea bete egin da.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Javier Balza Aguilera Arbitraje Batzordeko kide izendatzea, Arabako Lurralde Historikoaren ordezkari bezala (Foru Administrazioaren partaidetzako Erakundearen Erregistroan 154 zenbakia du).

Bigarrena: Erabaki hau Arbitraje Batzordeari eta Arabako Biltzar Nagusiei jakinaraztea.

Hirugarrena: Erabaki honek izendapen hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Agiri Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzeari kalterik egin gabe.

Gasteiz, 2021eko irailaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunizazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN